

## **DIRU-ITURRIAK:**

Gure produktua gaur egun dagoen arazo sozial bati aurre egiten laguntzeko denez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontaktuan jarri gara laguntza eskatzeko eta tratu batera iristeko. Gure diru sarrera nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiak emandakoa, izan ere gure bezero zuzenak tratu txar fisiko edo psikologikoa jasotzen duten emakumeak izango dira, baino zeharkako bezeroa Gipuzkoako Foru Aldundia izango da.

Chip honen helburua Gipuzkoako herritarren artean segurtasuna sustatzea izango denez eta segurtasuna guztiok dugun eskubide bat denez, jada badauden emakumeenganako indarkeriaren aurka lan egiten duten elkarteekin batera egingo dugu lan.

Pentsatutako “Kostu egitura” jarraituz gure proiektu hau aurrera ateratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak urtean 280.000 euro ordaindu behar dizkigu, horregatik diru- sarrera mota ordainketa bakarrekoa izango da. Gure helburua, zerbitzua 7.000 emakume horietatik gutxienez erdiari, 3.500, zuzentzea da, eta bakoitzari emango zaion zerbitzuak **80€** balio du, horregatik urtean 280.000 euro irabaziko genituzke. Irabazi horiei kostu finkoak (**129.250€**) eta kostu aldakorrak (**105.000€**) kendu behar zaizkio, horregatik gure urteko irabazia **45.750€** izango da. Kontuan izanda aparatu bakoitzaren margina 50€ (80-30) dela, 2.585 bezero beharko genituzke kostuak orekatzeko.

Irabazi horietatik zati bat eraso matxista, genero indarkeria... buruzko publizitatea hobetzera inbertituko dugu (kasu honetan kostu aldakorrak igo egingo litzatezke). Horregatik, gure produktuak prezio finkoa izango du beti (**80€**) baino irabaziak ez dira beti berdinak izango.